

# ALOKAIRUA ARRAZAKERIAK BALDINTZATUTA



Gaur egun arrazakeria oraindik arazo bat da gizartean. Hau da, oraindik arrazakeri kasu asko ematen dira egunero. Adibidez, emakume bati ez diote etxe bat alokatu bere azal koloreagatik, bera beltza zelako.

## GAUR EGUNGO EGOERA

Etiopiako emakume bat Elsa izenekoa Bilbon bizi da 2008. urtetik eta nazionalitate bikoitza du, etiopiarra eta espainiarra. Elsa bi hilabete daramatza etxe-agentzietan begiratzen etxe bizitza bat alokatzeko. Oraindik ez du aurkitu etxebizitzarik, inork ez diolako alokatu nahi bere azal koloreagatik.



Hau Elsa da, eta arazo hau daukala kontatu du la SER-ren.


## DATUAK

Urtean 50 salaketa inguru epaitzen dituzte eta horietatik 20k higiezinaren arrazakeria deskribatzen dute.

"Diskriminazioa dago migratzailea izateagatik. Erakundeek tresnak sustatu beharko dituzte diskriminazio hori horrela izan ez dadin", dio Daniela Rodríguez Bizkaiko SOS Arrazakeriako bozeramaileak.

## % 20 - A

Bizkaiko SOS Arrazakeriak aseguratzen du bideratzen dituen salaketen %20 Elsak eta haren familiak bizi dituzten egoerak deskribatzen dituztela.



## GEAU

Alokairua arrazakeriak baldintzatuta arazoak, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 2. ataleko azpiatal bat urratzen du: **Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.**

## GJH

Alokairua arrazakeriak baldintzatuta arazoak, **GJH helburuetatik 10. a** urratzen du: **desberdintasunak murriztea**. Ez ditu **10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA** desberdintasunak murrizten, gehitu baizik. Azal beltza dutenak etxe-agentzietara joaten galderak egiten hasten dira, eta gainera txarto begiratzen. Aldiz, azal zuria duen norbait joaten denean, ez diote ezer galdetzen eta ez dizkiote aurpegi txarrak jartzen. Gainera azal beltza dutenei garestiagoa jartzen diete alokairua azal zurikoei baino.

Egoera hau oso bidegabea dela uste dugu, denok izan beharko genukeelako jabetza bat alokatu edo erosi ahal izateko eskubidea, gure etnia, erlijioa edo soldata alde batera utzita. Inork ez liguke gaizki begiratu behar etxebizitza bat erosi edo alokatu nahi izateagatik, gure eskubidean gaudelako, eta inor ez litzateke baztertua sentitu behar hori egitean. Pertsonalki, guri ez litzaiguke gustatuko, denok dugulako aske eta desberdin izateko eskubidea, hau da, bakoitza bere modura ezberdina.